

DIRU-ITURRIAK

Gure kasuan sarrerak ordainketa bakarren bidezkoak dira eta prezioak finkoak. Ezaugarri eta bolumenaren arabera aurredefinitua egongo lirateke. Ahal den kantitate gehien saltzeko ideiarekin arazoizko prezioak ezinbestekoak izango dira, beti ere gure kostuak kontutan izanda. Mozkinak izateko koherentzia izan behar duelako. Arrazoi berdinagatik graduazio bakoitzarekin prezioak aldatuko dira.

Urte osoan krema erabiltzeagatik, txartela bat sortuko genuke deskontuak emateko. Geroz eta gehiago erabili, orduan eta beherapen handiagoa lortuko dute gure bezeroek. Horrela bezeroak urte osoan zehar erosle aktibo bezala mantentzea lortuko dugu.

Horrela, neguan hainbeste erabiltzen ez bada ere deskontua lortzeko erosten jarraitzea bultzatzen ditugu. Gainera, neguan bezalako momentuetan non eguzki kremako erabilera jaisten dan kontzientziazio kanpaina bat egingo dugu. Erakutsiz eguneroko eguzkitako kremaren erabileraren garrantzia.